

## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



### Cocina para 2. Las recetas del programa de TV

**Batzuen artean**

BAINET

198 orrialde

22,95 euro

### Hiru sukaldariren errezeta gozoak

Jatetxea Hondarribian du Ramón Rotetak; Pedro Subijanak Donostian daukan Akelarre jate txeko langilea da Enrique Fleischmann sukaldari mexikarra; Bruno Oteizak berriz, Arzak jate txean eta Frantziako hainbatetan lan egin ondoren, Mexiko DFn ireki du jatetxea. *Cocina para 2. Las recetas del programa de TV* izenburuko errezeta liburua osatzeko elkartu dira hirurak. Bazkari edo afari berezia egin nahi duten bi lagunentzat espreski pentsatutako errezetak eskaini dituzte. Hau da, garaiko elikagaiekin eginiko plater landuak, entsaladetatik hasi, zopa,

barazki, arrain, haragi eta bestelakoetatik segi eta postre taraino. Bihotzeko kuttunen baten sabela bete nahi izanez gero, hona aukera! **I**



### Oñatiko Unibertsitateko kaperako erretaula

**Pedro Echeberria,  
Xabier Martiarena**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

245 orrialde / 20 euro

### Oñatiko Unibertsitatearen historia eta zaharberritze lanak

1540. urtean Rodrigo Mercado de Zuazuola jaunak lortu zuen Paulo III.a aita santuaren bulda bati esker eraiki zen bere garaian Oñatiko Unibertsitate zaharra. Eraikinak eta horren apaingarriak Errenazimentuko benetako artelanak direnez, Euskadiko Monumentu Nazionala izendatu zuten Oñatiko Unibertsitate. Hori dela-eta, eraikina berritzeko obra handiak egin ziren 90eko hamarkadan. Baina orduan ez zen Pierres Picart maisuak eginiko Sancti Spiritus kaperako erretaula berritu. Haatik, hainbat urteren ondoren erretaula zaharberritua dago, eta hain zuzen lan horren xehetasunak eskaintzen dizkigu Gipuzkoako Foru Aldundiak plazaratutako *Oñatiko Unibertsitateko kaperako erretaula. Historia eta zaharberritzea* liburu ederrak. **I**

### 160. Jakinen mami ugaria

Gai oso ezberdinak azaltzen ditu *Jakin* aldizkariaren 160. zenbakia. Batetik, Gerardo Luzuriagak Euskal Herriko liburutegi digitalak dauzka hizpide. Bestetik, Txema Ramirez de la Piscina gizarte mugimenduak aztertu ditu, herrigintzan aritzeko beren bozeramaileen trebakuntza ezinbestekoa dela ondorioztatuz. Mikel Asurmendik Koldo Izagirreren *Sua nabi, Mr. Churchill?* liburuaren edukia izan du gogoe tagai. Jenaro Garatek berriz, kutxen fusioaren gainean dagoen eztabaidan bere ekarpena eskaintzea erabaki du, kalterako izango dela ebaziz. Jon Benito euskal liburuaren egungo egoeran sakontzen ahalegindu da. Lionel Joly hizkuntzaren erabileran. Eta Patxi Gaztelumendik euskarak gaur egun dituen komunikabide esparruez dihardu. **I**



### Jakin Batzuen artean

JAKIN

138 orrialde

9,50 euro

### Egan Altzibarren antzerkiaz

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko *Boletin*aren euskarazko gehigarria da *Egan* aldizkaria. Azken zenbakian plazaratu dituen lanen artean, Joaquín María de Alcibar-Jauregui (1746-1810) azkoitiarraren biografiari eta hark 1772an idatzi zuen *Grand tourra* izenburuko antzezlanari eskaintzen zaio tarte nagusia. Honakoak agertzen dituzte: Lan horren eskuizkribua; Iñaki Aldekoa Beitiaren oharra, antzerkiaren hitzez hitzezko transkripzioa eta moldatutako testua; eta Jose Luis Ugartek azalduko Joaquín Altzibarren antzerkiaren hitzegia. Jakina, bada *Egan* honetan bestelako lanik ere: esate baterako, Juan Mari Lekuonak 1957-1958an idatzitako egunerokoa aztertzen du Jon Kortazarrek; eta 2006an argitaratutako euskal liburuaren zerrenda aurkezten du Juan Luis Zabalak. **I**



### Egan

**Batzuen artean**

EUSKALERRIAREN  
ADISKIDEEN ELKARTEA

326 orrialde

18 euro



### Iparraldeko basamortuak

Rodríguez & Fernández

SAURE

48 orrialde

16 euro

## Etorkinen arazoei buruzko komiki samurra

Saure argialetxeak kaleratutako *Txanoo* komiki bildumak etorkinen arazoak azaltzen ditu haur baten ikuspegitik. Hiru komikiz osatua dago eta *Iparraldeko basamortuak* izenburukoa da bigarren hau. Protagonista Manuel txikia du. Peruko Tumbes eskualdean jaio, guraso eta arreba txikiarekin bizimodu hobearen bila Limara aldatu, eta han ere zereginik ez zeukatela ikusirik Australiara bizitzera joandako mutikoa. Hiriburuan kokatu ziren hasteko, australiar jatorriko eta hara iritsitako bestelako pobreez osatutako auzo batean. Baina orain Darwin-en, Kakaduko Parke Nazional

lean eman diote lana aitari, eta bidaia luze bat egin behar du Manuelek hara iristeko. Bidean, lagun asko egingo ditu. |

## Zooko animalien ihesa, hamar urtetik aurrerakoentzat

Bibliako Noeren istorioarekin zeharo txundituta gelditu zen Noelia. Eta telebistako eguraldi-iragarleari ekaitz handi bat zetorrela entzun zionean, Noeliaren arka egitea erabaki zuen. Bidaian zehar lagundu behar zioten animalien bila zoorra joan zen, karioletako ateak zabaldu, eta atzetik jarrai ziezaiotela esan zien piztiei. Baina animaliek ez zioten kasu zipitzik egin, eta Noeliaren atzetik joan ordez, hiriko kaleetara jo zuten, bakoitzari apetak eskatzen ziona egin asmoz. Eta noski, egundokoak gertatu ziren hirian. |

### Noeliaren arka

Txabi Arnal

IBAIZABAL

96 orrialde / 9,80 euro



MIKEL HERNÁNDEZ ABAITUA

## «Liburu honetako istorio guztiak Bazko arrautzak dira»

Kezka sorrarazten dute *Bazko Arrautzak*-eko ipuinok. *Begiak* izenekoak, adibidez...

Narrazio hori hainbeste luzatu zitzaidan, ezen eleberri laburra dela esan behar bainuke. Oso gaztea delarik sabelean bi begi sortzen zaizkion pintore baten istorioa kontatzen du. Zaila da, nire ustez, hau baino ipuin errealistagorik idaztea, zeina Arthur Violette poeta ospetsuari eskainitako omenaldia baita, Bernard Adamsek ere *Utopia* bere liburuan apokrifoki biografiatu zuen hura bera.

**Eta *Anaia* ipuinaz, zer diozu?**

Oroitzapen ipuina da, desagerketa baten istorioa. Egia esan, botila baten barruan bidalitako mezua da, Anthony Tebaldiri aspaldi igorri nahi niona. Badakit posta bide hau ez dela batere segurua; hala ere, ohikoa baino fidagarriagoa iruditzen zait. *Auzokoa* eta *Zakar-poltsak saltzen ditut*, berriz, oso aspaldi idatzi nituen, Ramón Cervera zenak zuzendutako literatur tailer batean. Oraindik zeharo ongi ulertu gabe dugun autorea da Cervera, zeina askoz hurbilago baitzegoen Borgesengandik edozein errealismo zikinetik baino, jende guztiak kontrakoa esan arren.

**Azken bi ipuinak geratzen dira aipatzeke?**

*Heriotzaren pabiloia*, bosgarren narrazioa, *Begiak* izenburukoarekin erkatuz gero diferentzia handirik ez dagoela neure buruari demostratzeko idatzi nuen. Eta *Bazko Arrautzak*, azken ipuinean agertzen diren pertsona eta leku izenak, jende guztia laster konturatuko den bezala, Francisco Simsiren benetako bizitzatik aterata daude, ezagutzen dudak idazlerik errealistena. Ipuin honek liburu osoari ematen dio bere titulua, istorio guztiak Bazko arrautzak direlako.



## Hernández Abaituaren ipuinak bi hizkuntzatan

Errealitatea eta fantasiaren tenkan biziarazten ditu Mikel Hernández Abaituak 1995ean

*Bazko Arrautzak* izenburuarekin euskaraz plazaratu zituen ipuinetako protagonistak. Orain, jatorrizko hizkuntzan eta egileak berak *Huevos de Pascua* tituluarekin gaztelaniara egindako itzulpenarekin kaleratu ditu Madrilgo, Alcalá de Henareseko eta Euskal Herriko unibertsitateek elkartzten dituen Ateneak, Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Zentroak. Liburuak, Ateneako euskal adarraren zuzendari Jon Kortazarren *Vindicación de la alegoría* azaltzen du, Mikel Hernández Abaituaren idazlanen, eta bidenabar *Bazko Arrautzak* bildumako ipuinen azterketa. Kortazarren iritziz, espresionismo kafkiarra, errealismo zikina eta surrealismoa dira, zeharo ezberdinak izan arren, halako hariak lotzen



### Bazko Arrautzak

Mikel Hernández Abaitua

ATENEA

252 orrialde

15 euro

dituen *Begiak*, *Anaia*, *Auzokoa*, *Zakar-poltsak saltzen ditut*, *Heriotzaren pabiloia* eta *Bazko arrautzak* ipuinen ezaugarri nagusiak. Hiru istorioetako protagonistei beren bizitza errotik aldatu dien zerbait gertatu zaie; beste hiru ipuinetakoei, berriz, ohiko bizimoduaren monotonia haustera datorren gertaera. Guztien nahia, sortu zaien arazoari irtenbidea aurkitzea baino ez da. ■

egileari galdezka